OINARRIAK

Lehenengoa.- Birzatitzeko proiektu hau Casablanca-2 sektorearen exekuzio juridikoa gauzatzeko idatzi da. Sektore hori Laguardia eta Lantziego udalerrietan dago eta haren plan partziala Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak behin betiko onartu zuen martxoaren 14ko 105/2008 Foru Aginduaren bidez.

Bigarrena.- Plan Partzialak udalerri bat baino gehiago hartzen duenez, Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak eman behar dio hasierako onarpena espedienteari.

Hirugarrena.- Proiektuaren agiriak aztertu eta egiaztatu egin da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 67 eta 68 artikuluetan eta Hirigintza Kudeaketaren Arautegiaren 71. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako aginduak betetzen dituela.

Era berean, proiektuak aipatutako plan partzialean eta eragindako udalerri bietan indarrean dauden planeamendu orokorrean ezarritako aginduak betetzen ditu.

Laugarrena.- Aztertutako kasuan, hasierako onarpena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onarpenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Araba Garapen Agentziak sustatu duen Casablanca-2 industrialdea birzatitzeko proiektuaren espedienteari hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- Espediente hori hogei egunez jendaurrean jartzea. Epe hori iragarki hau ALHAOn eta gure lurraldean gehien zabaltzen diren egunkarietakoren batean argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasiko da. Epe horretan espedientea Hirigintza Zerbitzuan egongo da ikusgai, nahi duenak alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

Hirugarrena.- Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 17a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente Proyecto de Reparcelación se redacta con la finalidad de llevar a la práctica la ejecución jurídica del Sector Casablanca-2 situado en los municipios de Laguardia y Lanciego, cuyo plan parcial fue aprobado definitivamente mediante Orden Foral núm. 105/2008, de 14 de marzo, del Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial.

Segundo.- Dado que el ámbito territorial del Plan Parcial abarca a mas de un municipio, la competencia para la aprobación inicial de este expediente corresponde al Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial.

Tercero.- Analizada la documentación del Proyecto, se comprueba que cumple las prescripciones establecidas en el artículo 42 y siguiente de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, así como en el artículo 71 y siguientes del Reglamento de Gestión Urbanística.

Asimismo, el Proyecto cumple las prescripciones establecidas en el Plan Parcial citado y en el planeamiento general de los dos municipios afectados.

Cuarto.- La naturaleza jurídica de la aprobación inicial en el caso examinado tiene el carácter de acto de trámite, simple impulsor del procedimiento que posibilita la publicación de su contenido, sin que suponga, de ningún modo, prejuzgar decisiones reservadas al acto de aprobación definitiva.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar inicialmente el expediente de Proyecto de Reparcelación del Polígono Industrial Casablanca-2, promovido por Álava Agencia de Desarrollo.

Segundo.- Iniciar un periodo de exposición pública de veinte días a partir de la publicación de la presente Orden Foral en el BOTHA y en uno de los periódicos de mayor difusión, y notificar individualmente el proyecto a los interesados para que puedan presentar las alegaciones que estimen oportunas, pudiendo examinarse el expediente en el Servicio de Urbanismo.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 17 de mayo de 2010.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**3587**

**314/2010 FORU AGINDUA, maiatzaren 19koa, Ogasun Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Honen bidez, abenduaren 16ko 712/2009 Foru Agindua aldatu egiten da, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko diren Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko zeinu, indize edo moduluak onartzen dituena.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 30. artikuluak zeinu, indize edo moduluen bidezko zenbatespen objektiboko metodoa arauz ezartzen diren jarduera ekonomikoei (jarduera profesionalak salbu) eta bertan xedatutako eran eta mugen barruan, aplikatuko zaiela ezartzen du.

Abenduaren 16ko 712/2009 Foru Aginduaren bidez onartu egin ziren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko metodoaren zeinu, indize edo moduluak, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko direnak.

Foru Agindu honi jarraikiz, 712/2009 Foru Aginduko I eta III Eranskinetan aldaketak egiten dira, bereziki, Jarduera Ekonomikoen gaineko

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**3587**

**ORDEN FORAL 314/2010, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 19 de mayo, de modificación de la Orden Foral 712/2009, de 16 de diciembre, por la que se aprueban los signos, índices o módulos, del método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aplicables a partir de 1 de enero de 2010.**

El artículo 30 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, establece que el método de estimación objetiva por signos, índices o módulos se aplicará, en los términos, límites cuantitativos y para sectores de actividad económica, excluidas las actividades profesionales, que reglamentariamente se establezcan.

Mediante Orden Foral 712/2009, de 16 de diciembre, se aprueban los signos, índices o módulos, del método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aplicables a partir de 1 de enero de 2010.

En virtud de la presente Orden Foral se introducen modificaciones en los Anexos I y III de la Orden Foral 712/2009. Estas modi-

Zergako 722. taldeko "Salgaiak errepidez garraiatzea" jarduerari dagokion etekin garbia zehazteari buruzkoak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Artikulu bakarra. Abenduaren 16ko 712/2009 Foru Aginduan aldaketak egitea. Honen bidez onartu egin ziren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko metodoaren zeinu, indize edo moduluak, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko direnak.

Bat. I. eranskineko 22 zenbakiaren 2. atalean 3 zenbakiko seigarren paragrafoa aldatu eta honela geratu da:

"Ibilgetu materialaren eta higiezinetako inbertsioen ondare elementuak, funtzionatzeko moduan jartzen diren unetik hasiko dira amortizatzen; eta ibilgetu ukiezinarenak, berriz, diru sarrerak sortzeko moduan dauden unetik."

Bi. III. eranskineko 2 eta 3 zenbakiak aldatu eta honela geratu dira:

"2. Aplikagarri izanik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatu direneko jardueren etekin garbia zehazteko asmoz, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako 722. taldeko "Salgaiak errepidez garraiatzea" jardueran ezik, kontratatu ondorengo hogeita lau hilabeteetan ez dira soldatapekotzat hartuko ondoko zerrendako talderen bateko kide diren langabetuak, kontratua mugarik gabekoa izan arren:

a) Hogeita hamar urte baino gutxiago duten gazte langabetuak.

b) Lan bulegoan gutxienez hamabi hilabetez izena emana duten langabetuak.

c) Berrogeita bost urtetik gorako langabetuak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeak eskatuko du, soldatapekoen kopurua zergaldi bakoitza amaitzean, edo jardueraren egikaritzaren geldiketa eguna heltzean, aurrekoa balitz, mugarik gabeko kontratua egin aurretik baino kopuru handiagokoa izatea. Horretarako, soldatapekotzat hartuko da, enpresaburuak dituen jarduera guztietan bere zerbitzuak ematen dituena, kontuan izan gabe, jarduera bakoitzak duen etekin garbia zehazteko metodoa edo era."

"3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatu direneko jarduerak, aplikagarri izanik, berorien etekin garbia zehazteko asmoz, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako 722. taldeko "Salgaiak errepidez garraiatzea" jardueran ezik, aipatutako aldaketaren ondorengo hogeita lau hilabeteetan ez dira soldatapekotzat hartuko iraupen zehatz edo behin-behineko kontratuak dituzten langileak eta hain zuzen ere, kontratu horiek, kontratu mota kontuan izan gabe, mugagabe bihurtuko badira eta era berean, ikasketa, praktika, heziketa, txandaketa eta aurretiazko erretiroa dela eta, betetze data kontuan izan gabe ordezkapen lan-kontratua duten langileak, beti ere, langileen kontratu horiek, mugagabe bihurtuko badira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Indarrean sartzea.

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 19a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

ficaciones se refieren, fundamentalmente, a la determinación del rendimiento neto correspondiente a la actividad de "Transporte de mercancías por carretera", grupo 722 de la Tarifa del Impuesto sobre Actividades Económicas.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Artículo único. Modificación de la Orden Foral 712/2009, de 16 de diciembre, por la que se aprueban los signos, índices o módulos, del método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aplicables a partir de 1 de enero de 2010.

Uno. Se modifica el párrafo sexto del ordinal 3º del apartado 2 del número 22 del Anexo I, que queda redactado de la siguiente forma:

"Los elementos patrimoniales del inmovilizado material y de las inversiones inmobiliarias empezarán a amortizarse desde su puesta en condiciones de funcionamiento y los del inmovilizado intangible desde el momento en que estén en condiciones de producir ingresos."

Dos. Se modifican los números 2 y 3 del Anexo III, que quedan redactados de la siguiente forma:

"2. A efectos de determinar el rendimiento neto de las actividades a las que resulte aplicable y por las que se haya optado a la modalidad de signos, índices o módulos del método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, excepto en la actividad de "Transporte de mercancías por carretera", grupo 722 del IAE, no se computarán como personas asalariadas, durante los veinticuatro meses siguientes a su contratación, los trabajadores desempleados incluidos en alguno de los colectivos que se relacionan a continuación, que sean contratados por tiempo indefinido:

a) Jóvenes desempleados menores de treinta años.

b) Desempleados inscritos en la Oficina de Empleo por un período de, al menos, doce meses.

c) Desempleados mayores de cuarenta y cinco años.

La aplicación de lo dispuesto en el párrafo anterior exigirá que el número de personas asalariadas al término de cada período impositivo, o al día de cese en el ejercicio de la actividad, si fuese anterior, sea superior al número de las existentes con anterioridad a su contratación por tiempo indefinido. A estos efectos, se computarán como personas asalariadas las que presten sus servicios al empresario en todas las actividades que desarrolle, con independencia del método o modalidad de determinación del rendimiento neto de cada una de ellas."

"3. A efectos de determinar el rendimiento neto de las actividades a las que resulte aplicable y por las que se haya optado a la modalidad de signos, índices o módulos del método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, excepto en la actividad de "Transporte de mercancías por carretera", grupo 722 del IAE, los trabajadores con contratos de duración determinada o temporal cuyos contratos sean objeto de transformación en indefinidos, cualquiera que sea la modalidad contractual objeto de transformación, así como los trabajadores cuyos contratos de aprendizaje, prácticas, para la formación, de relevo y de sustitución por anticipación de la edad de jubilación, cualquiera que sea la fecha de su celebración, se transformen en indefinidos, no se computarán como personas asalariadas durante los veinticuatro meses siguientes a la citada transformación."

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA. Entrada en vigor.

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el BOTHA y surtirá efectos desde el 1 de enero de 2010.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de mayo de 2010.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.